

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Unibertsoa materia ilunaren bila

MATERIA ILUNA oraingoz hipotesia baino ez da, ez baita inoiz frogatu hura existitzen denik. Definizioz, argia jaso edo emititzeko ahalmenik ez duen materia da, eta ustez unibertsoa materia osoaren %80 inguru da.

Materia horren existentziaren galaxien errotazioan sortutako indar zentripetoa orekatzeko sistemari egotzen zaio; materia barionikoa –ikus dezakeguna– ez omen da nahikoa, eta galaxiek zatitan puskatzeko joera behar lukete. Baina haus-keta gertatzen ez denez, ikusten den materiak gain beste zerbait behar du izan.

Materia iluna detektatu nahian mundu osoko ikerlariak bildu dira Italiako Gran Sasso mendietan, XENON izeneko saiakuntzan. 1.500 kilometroko sakoneran, xenon likidoa sartu dute bi detektagailu dituen edukiontzi batean, eta xenona oso dentsitate handiko materiala denez, materia ilunak xenona gurutzatzen badu harrapatu eta detektatzaileen bidez antzemango da. Materia ilunaren existentzia frogatzen bada, material sorta berria lortzeko atarian izan gaitezke.




Gran Sasso mendilerroa, Italian.

Uste baino hidrokarbuero gehiago ote dago planetan?

JAKINA DA egungo energi iturri nagusiaren, hau da, hidrokarbueroen formazioan urtetan zehar metatutako konposatu organikoak daudela. Baina konposatu organikorik gabe posible al da hidrokarburorik sortzea?

Europako hainbat ikerlarik, elkarlanean arituta, presio atmosferikoa baino 20.000 aldiz handiagoa den presioan eta 1.000°C-ko tenperaturaren jarri ondoren, metanoari erreakzionatuz eta etanoa, butanoa, hidrogeno molekularra eta grafitoa sortu zituzten. Hau da, hidrokarbueroak sortu zituzten, besteak beste.

Arestian aipatu presio eta tenperaturaren baldintzak lur azpian 64 eta 153 kilometroko sakoneran daudenak direnez, zilegi da pentsatzea sakonera horietan naturalki sortutako hidrokarbueroak daudela. Hala bada, energia fosilen agortzea uste baino dezente urrutiago izan daiteke.



Karbono-tasari buruzko eztabaida Frantzian

Orain gutxi, Nicolas Sarkozy hamazazpi euroan finkatu du emititutako CO₂ tona bakoitzeko ordaindu beharreko tasa, eta inor gutxi dago pozik neurriarekin. Ondoko webguneetan gaiari buruzko hainbat iritzi ikus daitezke.

<http://ttiki.com/6340> (Frantsesez)
<http://ttiki.com/6341> (Frantsesez)

Ur tantak, elkartu ordez, bereizi egiten dira batzuetan

Zientzialariek badakite aurkako kargak dituzten bi ur tantak elkartu eta tanta potoloagoa osatzen dutela, baina zientzialari bat ohartu da hori ez zela beti gertatzen, batzuetan elkar aldatzen dute eta.

<http://ttiki.com/6342> (Frantsesez)

Bakterioen aurkako borroka

Nahiz eta antibiotikoak hartu, batzuetan hainbat bakterio irautea lortzen dute eta asko zailtzen dute gaixoa sendatzea. Badirudi bakterio horiek nitrogeno monoxidoa sortzen dutela eta horrek babeska eskaintzen diela.

<http://ttiki.com/6343> (Frantsesez)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16